



HAURRESKOLAK PARTZUERGOARI ESKAERA ZERREDA: ERANTZUNIK EZ

Zorione Etxezarraga, Haurreskolak Partzuergoko gerenteari,

COVID19ak eragindako larrialdi egoerak sortutako zalantzak asko izan dira. Egoera guztiz baldintzatuta dagoen arren (larrialdiaren garapenagatik, gobernuen aginduengatik...), **STEILAS** sindikatuak eta langileok ezinbestekoa dugu Haurreskolak Partzuergoak komunikazioa erraztea eta erantzunak ematea. Oraindik, ez da horrelakorik izan.

Egun hauetan dokumentu ezberdinak bidali dizkizuegu zalantza eta proposamen ugarirekin, baina zuen erantzunaren zain gaude:

- Ordezkapenen banaketa, hezitzaile ordezkoen egoera eta ordezkoen zerrendaren baremazioari buruz egindako eskaerak **erantzun gabe** daude.
- Kudeaketa langileen barne sustapenaren prozesuei buruz planteatutako zalantzek eta ezinegonak ere **ez dute erantzunik izan**.

Zalantza hauetaz gain, mezu honen bitartez ikasturte hasieratik, behin eta berriz, mahai gainean jarri ditugun eskaerak plazaratu eta bete gabe dauden konpromisoak gogorazti nahi dizkizugu:

- **Haurreskolak Partzuergoko langileen lanpostu zerrendak.** Kudeaketa langileena martxorako publikatua egon beharko litzateke (urtarrilaren 6ko aurre-akordioan adostu zenuten bezala). Hezitzaileena, berriz, martxoan edo apirilean EHAA argitaratzen dira urtero EHAAn. Ez dugu bi gai hauei buruzko berririk.
- **2020ko lekualdatze lehiaketa.** Bi urtean behin hezitzaileen lekualdatze lehiaketa egin behar da. Aurten egitea egokitzen denez, **STEILAS** sindikatuak LALA aurten burutzeko egin beharreko ahalegina egitea eta ahal bezain laster prozesua negoziatzen hastea eskatzen dizue.
- **Haurreskolak Partzuergoko 2020-2021eko izen-ematea.** Beste behin, Haurreskolak Partzuergoko izen-emate kanpainak Hezkuntza Publikoko matrikulazio kanpaina orokorrarekin bat egin ez izana akats larria izan dela esan behar dugu. Aukera hori galduta dagoeneko, momentu honetan Eusko Jaurjaritza eta Haurreskolak Partzuergoari ahalegin berezi bat egitea eskatzen dizuegu ahalik eta azkarren izen ematearen kanpaina diseinatzen hasteko, on-line egiteko aukera bermatzeko eta, egoera normalizatu arte, izen-emate epea irekita uzteko.
- **Ordezlagunea martxan jartzea.** Inoiz baino garrantzitsuagoa da Haurreskolak Partzuergoko langileentzat ordezlagune aplikazioa martxan jartzea, langileentzat gardentasuna eta aukera berdintasunak ekarriko baititu.

Larrialdi egoera honen eta sortutako zalantza guztien aurrean langileok eta familiek merezi dugun erantzun zuzena, gardena eta azkarra izatea eskatzen dizugu Haurreskolak Partzuergoko gerentea zaren heinean.

STEILAS sindikatuak bilerak on-line egiteko eta elkarlanerako bere prestutasuna ere adierazi nahi dizu mezu honen bitartez.

2020ko martxoaren 27a.
STEILAS



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus